

**BATZAR AKTA 1/2022**

<b>Gaia:</b>	<b>Kontratazio lan-taldea</b>
<b>Helburua:</b>	Bermeoko Udaleko kontratazioaren espedienteak eraginkorragoak izatea
<b>Data:</b>	<b>2022/05/18</b>
<b>Hasiera – bukaera ordua:</b>	<b>11:10-13:00</b>
<b>Parte hartzaileak:</b>	Jurdana Uriarte (Idazkaria), Edurne Uriarte (Kontu-hartzailea) eta Nerea López (Idazkaritzako AOT eta lan-taldeko koordinatzailea).

**Tratatutako gaiak/Ondorioak:**

<b>Gaiak:</b>	<b>Ondorioak:</b>
1. Aurreko aktaren onarpena	1. Akta onetsi da
2. Aurreko batzarreko egitekoen jarraipena	2. - Baldintza agirien ereduak: Hartu-emonetan pleguak elebitan igotzea adosten da.  - Kontratu txikien publikazioa: Erosketa Sailak (Néstor) egiten jarraitzea adosten da.
3. Prozedurak efizienteagoak izateko proposamenak aztertzea	3. - Internet bidez egindako erosketak: Diruzaintzan zentralizatzea adosten da eta txartel birtual baten bidez ordaintzea. Kutxa aurreratuak izango balira bezala izapidetuko dira, baina bakarrik erabiliko da gastu arruntentzat. Horretaz gain, aurrekontua betearazteko oinarrietan arautu beharko da. gainontzeko puntuentzat, kutxa aurreratuen instrukzioan zehaztutako aplikatuko da.  - Babesletza-kontratuak: Kasuz kasu aztertu beharko dira ea zatiketa dagoen edo ez ikusteko eta ekiditeko kontzeptu berberetatik diru-laguntzak jasotzea.  - Alkatetzako kontratu txikiak: Kontratuaren objektuaren arabera dagokion sailak tramitatu beharko ditu.  - Kontratu txikien ereduak: Idazkaritza Sailak prestatuko ditu eta gainontzeko sailei helaraziko zaizkie.  - Udal kontratazioa: Idazkaritza Sailean kontratu guztien izapidetzea zentralizatzea adosten da, kontratu txikiak izan ezik.  - Hornidura kontratuak: Kontratuaren



arduraduna izango da gastuaren partida ekonomikoa dagoen Saileko teknikaria (adibidez energia elektrikoa edo gasa).

- Kontratu txikien kontrola: Ekonomia Sailean zentralizatzea adosten da eta informazioa Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea.

- Autotaxiak: Kontratu bidez bideratzea adosten da eta ze sailek eraman beharko duen erabaki politikoa izatea.

4. Sail ezberdinetako arazoak bideratzeko proposamenak

4. Ez dira aurkeztu.

5. Udaleko kontratuak zentralizatzeko proposamena

5. Aurreko atalean zehaztu dira.

#### Bileraren helburuaren betetze maila:

% 100

#### Egitekoak:

Deskribapena	Epea	Erantzulea	Eginda
Baldintza agirien ereduak elebitan ipintzea	2022-06-21	Nerea	
Kontratu txikien ereduak prestatzea	2022-06-21	Nerea	
Kontratu txikien kontrola eta publikazioa	2021-06-21	Néstor	

Data: 2022/05/18

Akta hartzailea: Nerea López Angulo

Or. 2/2

